

## HITZAURRE

Lerro hauek idazten ari geralsarik, lehenengo „Branka”ri buruzko iritziak eta gütunak ez dira aitu. „Branka”ren horrietan denei banan-banan ezin erantzunik ere, zuen aburuak jator eman dizkiguzuten guziok har itzazute gure eskerrik gartsuenak ; eta jakin zazute zuen hitzak eta ideiak aintzakotzat hartu ditugula. Horixe nahi genuen eta nahi dugu gaur ere : beren buruz pentsatzen duten euskaldun guziekin alkarrizketa bat hasi. Ikus dezakegunez, alkarrizketa hori hasia da gure artean.

Batzuen galderak erantzutekotan, gure asmoa zein dan berriz ere azalduko dugu hitz gutxitan.

Egiazki, hiru hitz nagusik bil dezateke ongi xamar gure nahia.

„Branka” EUSKALDUN kaseta bat da : euskaldunek egiña eta euskaldunen zerbitzutan idatzia ; eta hortaz, bestela eziñik, abertzale eta euskaltzale errotik ; hots, arrunt Euzkadi’ko erresuma askatu eta euskaldunaren aldekoa. Erdaltzalekeria, ezkerkoi-itxuraz diximulaturik ere, gure etsaia da arras, eta inperialismoaren segida hutsa. Gure Aberria Euskal Herria da, gure nazio-kultura euskalduna da, eta gure hizkuntza euskera.

„Branka”k kaseta INTELEKTUAL bat izan nahi du. Intelektualen eginkizun nagusia egia billatzea dan ezker, „Branka”ren billakizun nagusia ere egia da. Egia aurkitu nahi dugu eten gabe, politikan eta politikatik at : ez bata bestea gabe. Gure huntan, halere, gaurkoz Euskal Herriaren nazio-arazoaz ari izango gera bereziki : gu ez baikera hodeietan bizi, gure sorterrian baizik ; eta gure nahia, gure herrikideek egia eta bidea aurkitzen laguntzea baita. Hori dala-ta, gizonak geran aldetik eta euskaldunak geran aldetik, egia oso horren alde jokatu nahi dugu egia ahalean argituz eta geure ekintzaz obratuz.

„Branka”, hirugarrenik, aurreko bi helburu horiek izanik, AURRE-RAZALEA da. Bai euskaldun gizonari buruz eta bai Euzkadi’ko erresumari buruz, bai sozialista eta bai abertzale geranez beraz, dogmariarik gabe aztertu nahi ditugu arazoak, baiña xedea egiazko demokrazia bat geldituz, hitzezko sasi-demokrazia guzietatik urrun. „Branka” kaseta libro bat da : gure mugak geronen hiru helburu nagusiek jarri dituzte, ez izkutuan dabillen iñork.

Ahal dugun neurrian, hiru xede horiek zerbitzatzea dugu asmo eta sari bakartzat.

Branka’k.